


# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

265n. zenbakia  
iraila 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ZULA'KO ORO (ARABA'N)**

**TOKI ZORAGARRIA  
IKUSPEGI EDERRAK  
EDESTIKO GOMUTAKIAK**

E U S K E R A Z A L E A K

## 2001 - 2002 IKASTURTEA

OGEI TA AMALUGARRENA  
BIZKAIERAZ  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN  
Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN  
Ordaña: 20.000 PEZETA  
Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO  
Asierea: URRILLAREN 8AN

34.<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACION

Dias: LUNES, MI RCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES  
Horas: MANANA, TARDE Y NOCHE  
Curso completo: 20.000 PESETAS  
Inscripciones: EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TEL FONO 423 53 22 - BILBAO  
Comienzo: 8 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



bbk=

# LEGE ZARRA (FORUA) IV: GUZTIAK LEIÑARGIAK (NOBLEAK)

Erdi-aroan leiñargia izatea, norberaren eskubideen babesa ziurtatzea zan. Leiñargi zana ez zan oiñazetu edo torturatzen, zergarik ez eban ordaintzen, baiña erritar zeea zanak, karga aundiak eta irain mingarriak jasan bear izaten ebazan.

Ez egoan ba, aldi aretan erritar guztien bardintasunik legearen aun-en.

Foruak sarritan agertzen dau leiñargitasuna Bizkaitar guztiak daukela. Ara zer diñon 1.º atalaren 16n. legeak:

"Beste au be esan eben: Bizkaia Jaunerriak bertakoak diranak, auzokide diranak eta bertan bizi diranak, lur-lauan aiz urietan naiz uri aundian, Enkarterrian naiz Durango-aldean bizi diranak, leinargi ezagunak dirala eta gizon leilargiai dagokiezan eskubide guztiak eukezala".

Ori bein baiño sarriago agertzen da Foruan. Orduan ezin zeitekean guztien bardintasuna iragarri, XVI gizaldi aretan, baiña elburu bardiñera eltzen da erritarrak naiz bertan bizi diranak leiñargi dirala ziurtatuaz.

Leiñargitasun au urteen joanean lortu dan aurrerapena da. Foru zarrean oraindiño ez da agiri ain argi, leiñargiak eta lugiñak ez daukez eskubide bardiñak, naizta bizkaitarrak geienak leiñargiak dirala esan. Baiña burutasun ori barru-barruan egoan eta beste era batera agertzen da: Bizkaia Jaunerrian leiñargiai dagokiezan agiriak sortzea, antxiñako ekanduari jarraituta, debekatuaz.

Leiñargi guztiak izateak ez dau esan gura gizartean eta gizarteko mailletan edo aberastasun-arloan guztiak bardiñak dirala. Giza-maillak badagoz beste toki batzutan lez, baiña iñor ez da beste baten morroi. En1-eskubideetan agertzen da bardintasun ori. Argi agertzen dausku ori Julio Caro Baroja'k: Morroirik ez egoan errietan. Zelan geratzen ziran ba, aberatsak eta txiroak, ugazabak eta alokariak? Ori ez zan agertzen erri-eskubideetan, eta ez da gitxi:

Bizkaian asko maite zan leiñargitasun au eta onen alde burruka aundiak egin ziran. Juan Garcia batek liburu bat idatzi eban eta liburu orretan bizkaitarren leiñargitasuna ez zala antxiñako eskubidea esan eban. Jaunerriak Erregearen aurrera egin eban gora-deia eta II Felipe'k 1 .590n. urteko eskutitz baten liburu ori batzeko eta eraso dauken zatiak kendu edo zuzentzeko" agindu eban.

## ONDORENAK

Lenengo ondorena esku-lanaren duintasuna aintzat artzea izan zan, otsein-lana esaten jakona be bai. Olako lanak ez dira iñoz artu zapalkuntza edo duintasunik-eza ba-lebe lez.

Gaiñera leiñargitasunak beste iru ondoren oneik ekarri ebazan:

1.<sup>a</sup> Zergetatik aske izatea. Baiña orrek ez dau esan gura forudunak ez dauala ezer ordaindu bear. Ori txarto uler-tzea litzake. Beste zergak kendu arren, forudunak ezarrita dagozan zentsoak ordaindu bear dauz bere jabetasunak kontuan dirala eta 16 diru zar egiten dauan burdinkintal bakotxagaitik. Gaiñera Bizkaia'k barruko zaintzaren eral-ketak ordaindu bear ebazan, esaterako bideak eta etxe-egiteak. Bizkaia'ren kontura egin zan, adibidez, Pankor-bo'ra bide zabala. Geiago ordaindiño, Kanpotik etorten ziran diru-eskeak, erregearen aginduz geienetan, foru-baimena lortu bear eben. Sarritan emoten jakoz erregeari izkilluak, gudariak, itxas-ontziak, eta dirua, baiña beti Batzar Nagusietan baimena lortuta. Foruak ez dau esan gura Bizkaia'k ez dauala ordaintzen, legezkoa dan ala ez erabagita gero ordaintzen dauala baiño.

2.<sup>a</sup> Gudaritza be antzeko arazoa da, baldintza batzuk bear dira gudariak jaunerritik kanpora joan bear izateko: Laiñargia ezin beartu lei gudaritzara joateko, saria ordainduta izan ezik. Malato zugatzera arte jarraitu bear dautso jaunari gudari lez eta doan, baiña andik aurrera aurretiaz saria ordaindu bear jako. Mendietatik onantza ba'da gudalekua ille biko saria eta mendietatik arantza ba'da, iru illebetekoa.

Malato zugatza Luiando errian egoan. Zugatz orretan sartzen eben espatea bizkaitarrak eta ainbeste espata sartu ondoren, zugatza maillatuta geratu zan, ori esan nai dau erromantzeko "maleatus" itzak, mailluaz jota. Zugatz ori, jakiña, urteen joanean il egin zan eta orain kurutze bat dago zugatza egoan tokian. Kurutze au 1.730n. urtean ipiñi eben. Zugatz onen kondaira Arrigorriaga'n izan zan gudalditik dator. Kondairazko lenengo Jauna, Lope Fortun izan ei zan (Jaun Zuria) eta onek Bizkai'ko gudarien nagusi lez Leon'go erregea azpiratu eban gudaldi odoltsu baten ondoren eta toki areri Arrigorriaga ipiñi eutsoen izena, ango arriak odolez gorrituta geratu ziralako. Luiando'ra arte ekarri ebezan Leon'darrak aurrean eta an II Ordoño erregeari joaten itzi eutsuen barriri ez etortekotan, oso makal ikusi ebelako. Eta zugatza espateagaz jo eta an amaitzen zala eraso esan ei eban Jaun Zuriak. Ortze ipiñi ei eban Jaun Zuriak berak Bizkaiaren egoaldeko muga.

3.<sup>a</sup> Bizkai'tarrak, edozelako errua leporatu arren, iñok ezin eikezan oiñazetu (torturatu) edo berari oiñazezemaia egin. Erdi-Aroan oiñazeak ikaragarrik izaten ziran, batez be egia erason eta esan-azoteko. Gaur be badagoz olako jokabide ankerrak. Ori bizkaiatarrai egitea galazota egoan, berton naiz kanpoan, leiñargiak ziralako. Beste leku batzutan be leiñargiak ez ziran oiñazetuak izateak, erritar zeeak bai.

# KRISTINAUAK MILLAGARREN URTERA ARTE EUSKALERRIAN

## ITURRIAK

Ez da larregi aztertu zelakoa izan zan kristiñauen bizierea Euskalerrian millagarren urtea baiño lenago. Eta jakingarria, jakin-bearrekoa da.

Ur aundietara sartu barik, iru iturri artuko dodaz idaz-lantxu au gertatzeko: gure Latiegi'tar Bixente'k argitaratu dauzan liburu ederrak, Arrinda'tar Anes'ek idatzi dauzan liburu aztergarriak eta neuk erri-oiituretan eta baseleizetan aurkitu dodazen gauzak.

## ASIERA

Lenengo burura jatorkun itauna auxe da: Noiz asi zan kristiñauen bizierea gure artean? Erantzuna emoteko, beste itaun au: Noiz esan zan Bizkaia 'n lenengo GURE AITA edo, oraindiño be errian entzuten dan berbea erabilliz, lenengo PATERNOSTERRA. Orain be illerrien atetan sarritan irakurten da berba au, eta jan-aurrean be entzuten da: "Bota egizu paternoster bat". Garrantzi aundia dauka otoitz onek gure kristiñau bizitzaren edestian! oraintsu il dan batek, il aurretxean esan eban: laster esango dauste paternosterra.

Nire ustez laugarren gizaldia amaitu baiño lentxua-gu jazo zan ori, lareungarren urtea baiño lenago. Bizkaia'n diñot gero!

Bigarren galdera au: Noz izan ziran Bizkaitarrik geienak kristiñau? Nire ustez seireungarren urterako Bizkai guztian edo geienean zabaldua egoan kristiñau-zea.

## SENIIA OIÑARRI

Antza dagoanez, monje edo lekaideak izan ziran guretzat Barri Onaren ekarleak. Orduan eta gaur abadeak deritxegu onei.

Lekaide oneik, abadeak, sartzerakoan sendietara sartu ziran. Izan be, Santimamiñetik edo beste atx-zulo batzutatik urten eben gizakiak, ormadun etxeak egiten asi ziran eta etxe oneitan egiten eben bizitza osoa: Jan, edan, lo, soloa landu, abereak zaindu, eizatik janariak ekarri, lanabesak egin, atxagaz-edo: azkorea, atxurra, aiztoa... Antxe illobiratzin ebezan euren illak, antxe euken, koban lez, erlejiño-tokia, aztikeria zan erlejiñoa. Etxeko ama izaten zan olako ekintzak beteten eba-

zana, gero illetetan eta orain arte izan diran oiituretan agertzen dan lez: Illobia edo sepulturea etxeko amak zaintzen dau, ez iñoz aitak.

Giro orretan bizi zan sendira etorri zan Jesus'en barria emoten lenengo lekaidea edo abadea. Giro orretan irakatsi eban paternosterra edo gure aita esaten.

## SENDIAK ALKARTZEN

Ebanjelizatzailea zan lekaide edo abade orrek sendia dan lakoa artu eban, baiña laster asi eban sendiak alkartzeko bidea. Alkarregandik ur bizi ziran sendiak illetak egiteko alkartzea eskatu eban: Ille gorputzak ez etxean, eleizan illobiratu bear ziran, kristiñauak ziranean. Kristiñauak ez ziranak, ume bateatu bakoak, etxean illobiratu eikezan, teillatuaren edo itugiñen azpian. Baiña kristiñauak eleizan. Eta jokera onek gauza bi ekarri ebazan: Olako ekintzetarako toki berezi bat gertatzea (orra or baseleiza edo ermiten sorrera) eta dana eratzeko norkiren bat izatea, (orra or Fika'ko serora, Seroretxean, edo Birle'ko Villela'tarren ermitañoa edo Markaida'ko freila).

Ermita edo baseleiza asko dira Erromanikoak eta millagarren urtea baiño lenagogokoak, seireungarren urte ingurukoak: Magdalena deunaren baseleizan eta Anton Deunarenean leio bi dagoz, bakoitxean bat, bisigodoen aldikoak. Batak kurutzeta dauka eta orduan kristiñaua da.

Lenengo denporetako baseleiza oneik ez ziran etxe sendoak eta batzuk jausi egin ziran, baiña barriak egin ziran langoen zatirik ederrenak sartu ebezan eta sarritan gotiku-tankerakoak dira, 1.200n. urte-ingurukoak.

800n. urte-inguruko edergarriak ugari daukaguz: Berriaga 'n, Fruiz 'n, Meñaka-barrenan, Emerando 'n, Jainko 'n, Mungia 'n...

## ERLIJIÑOAREN AURRERAPENA

Baseleizak edo ermitak, geienetan, oso txikiak dira. Ogei lagun sartu ezkeru bete-bete egiten diranak. Millagarren urtearen aurretik ez zan egiteko gaurko parrokien antzeko eleiza aundirik. Orduan, zelan bizi izaten zan kristiñauan alkar-bizitzazko fedea?

Ez, antza dagoanez, domeketako mezea eginda.

Emen bertoko abaderik ez da agertzen. Errioxa'ko Donemiliane'n agertzen da 1053n. urtean Abba Mume izena dauan Mungia'ko abadea. Orrek ez dau esan nai bakarria zala edo lenago ez zala izan abaderik. Baiña eleiza aundirik ez egoan lez eta eleiza txikiak asko ziran lez (Mungia'n bertan daukaguz amar bat), ez da sinistekoa eleiza bakoitxean abade batek meza bat esaten ebala. Baiña bai, ba-egoan baseleizetan arduradun bat, esan dogun lez: Ermitañoa, serora edo freila. Zer egiten eban onek? Ona emen nire susmoa: Goiz, eguerdi ta arratsean kanpaia jo eta etxeetan amak otoitza egiten eban. Ortik gure guraso zarren ain adura aundia iru otoitz-aldi oneik egiteko. Ekaitza sortzen zanean, araoa edo konjuroa egiten eban lau ebanjelioen asierak irakurriz, urtean bein odeia bedeinkatzen zan, urtean bain soloak bedenkatzen ziran. Bedeinkapen oneik ur bedeinkatuaz eta paternosterra esanda egiten ziran, eta asieran abade barik.

Beste ekintza bat arrentzak edo errogatibak ziran. Orretarako guztiak baseleiza baten alkartzen ziran, batez be izurrien edo pesteen aurkako eskariak egiteko, ospetsuak izaten asi ziran santutegi batzutan esaterako Jainko'n bederatziz-urtenak egiten ziran santuen egunerako edo beste sasoi batzutan, santu bakoitxari almen bereizi bat ezartzen jakon, esaterako San Kristobal'eri belarriko miña osatzekoa, orretarako orioa isuriz, edo San Antolin'eri sabeleko miña osatzekoa...

Santa Kurutz eguna ospatzen eben era berezian eta egun orretan trumoiak bedeinkatzen zan, maietxean askatzen zalako eta iraillean lotzen zalako.

## LABURPENA

Erlejiño-ekintza oneik bizi-bizi izan dira gure errietan orain 40 urtera arte. Bardin illetetako oiturak be, orain olata izena baiño geratzen ez dala... eta egun orretan janariak emoten dira jatetxean.

Kristiñautzea, Jesus'en Barri Ona ezagutu eta biziera barria artzea baiño geiago zan, aurretikoen oiturak santu biurtzea, suagaz gabonetan edo San Juan egunean egiten dan antzera. Kristiñautze oso txiroa zan, baiña benetakoa, biotzez artua, izadiagaz ondo lotua, bear-izenetan Jaunari dei egitekoa.

Arrezkero aldakuntzak asko eta sarritan izan dira. Aspaldion domeketako mezea izan da nagusi eta orain-tsuago talde-bizitza.

Baiña larriune baten gagoz. Gaur gazteak eta ain gazte ez diran berrogeta amar urteko kristiñauak domeketako mezea itzi dabe eta illetak, ezkontzak, bateoak eta olakoak ospatzen dabez. Nora ete doa bide au? Zertan amaituko da jokabide au? Zein urtenbide izango dau abadeen urritasunak? Ezer ikasi geinke antxiñako oituretatik? Zelan eguneratu, gaurkotu fedea eta oiturak sortu?

**Olazar'tar Martin'ek**

---

---

**ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO  
LENAGOKOAK DIRA.  
BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN  
DATOZ; ZUGAZTIAK GALTZEA  
GIZONENTZAT ZIGORRA DA.**

CHATEAUBRIAND

---

---

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, **ZER** aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# KILI-KILI BARRIA

Kili-Kilitarrok, agur!

Jaio zanetik artuten izan dot Kili-Kili aldizkaria, bizkaieraz artu be. Badira, bada, ogeitazak urte daborduko. Aldizkariaren aldi barrion bizkaierazko argitalpenari eutsiko ei deutozue. Ondo be ondo derixtot orreri.

Leengo aldian, etxera eldu jatan aldi barriaren leenengo alea. Bizkaierazkoa, atan be. Aurrerantzean be alantxe izan daiten gura dot. Alandaze, arpidetzeari eutsi gura deutosot.

Baina,... beti bainaren batek edo bestek egon bear, aldizkariaren bizkaierera sano motela da. Ezegokia dala esango neuke. Bizkaierera ez da aditza bakarrik (deutso, dot, eban...), lexikoak zein jostekereak aditzak berak beste-ko garrantzi andia euki badauke. Eta or ikusten dot, argi eta garbi, moteltasuna, zuongan ez eze, bizkaieraz ezau-garriak erabili eta eurei eusteko. Beste euskalkien eta, batez be, batuaren interferentziak (ari izan, elur, aitortu, eromena, egitera joan, informazioa, izugarri, gutxienez, joera, esan daikegu, ekaitz, erraztu, jolastu,...) saiestuteko bideak eta neurriak artu bearko dozuez. Orretarako, garbi euki bear da bizkaierera zer dan.

Pentsau eizue, bizkaierera euskalki bizia dana eta ezau-garriak berezienak oraindikarren bizirik dituana. Zaa-rren bizkaiera gozoa eta aberatsa orriotara ekarrikeran, orduantxe izango dozue, izkuntza mailan, lorpenik andiena. Izkuntza biziaren mundua eta mundu ikuskerea orriotara aldatu. Zoritxarrez, ikastoletan eta eskoletan irakatsi eta irakasten ez dana edota irakasten jakin ez dakiena.

Bizkaierazko argitalpenari jagokonez, bearrezkotzat ikusten dot bera omogenoa izatea, au da, bizkaiera utsean agertutea, eta ez bizkaierera eta batua naastean agertutea. Egon be, batuerazko argitalpena egongo da eta.

Amaituteko, testu larregi agertutea gogaikarri izan leiteke ume eta gazte irakurleentzako. Ez ete da erakargarriagoa komiki geiago agertutea testu luzeak eta ugari baino? Alantxe dalakoa daukat.

Goian esandakoa aztertuko dozuelakoan, eskerrik asko eta urrengora arte.

## JAIOTZERA DOA

"Nazio aske bat jaiotzera doa" izan da irago barri diran auteskundeetan EHK erabilitako goiburuetariko bat. Ori entzun-ikusit, buruan azka egin eta, "txo, orrek ez jok bape ondo emoten, gero!", esan neban neure artean. Nire belarrietan ez eban ondo jo orrek, arrotz jo be. Izan be, "jaiotzera doa" ori kalko txar utsa da, espainolkadea.. Oker ez banago espaineraz "va a nacer", frantsesez "vaa naitre", inglesez "is going to be born", alemaneraz "wird gebo-

ren" esango leukee goiko a. Ez ete dogu esango guk euskaldunok "jaioko da", "jaio bear dau", `jaioteko dago" edo olangoren bat axe baiño? Baiezkoan nago. Sarri be sarri ikusten dira an-or alango okerrak, bein ta barrian. Alerdi politikoak be ez dira jokera negargarri orretatik ate lotu. Oraingoan bada, nire eritxi apalean, sano laprastada nabarmena egin dabe EHko euskera arduradunek. Ganera, Euskalerra osora zabaldu dabe mezu diglosiko ori. Euskeraz egitekotan euskeraz egin eta bera jagon, euskal-ñolik ez, arren.

Iniaki MARTIARTU

## "MENDIKO BASOAK ETA BARRUTIAK EZ DOZUZ ERREKO"

TAOISMOAREN 67N. AGINDUA

### URTE-URRENA

2000n. Urteko irailaren 21 n. egunean il zan Bilbao eta **Arruztar Jon Erramun** gure lankidea ta adiskidea.

Bere alargun Julia Olazar'eri, senideai ta adiskideai dei egiten dautsegu aurtengo irailaren 21 n. egunean Indautxu'ko parrokiaren bere alde ospatuko dan mezara

Aurretiaz, eskerrik asko

**EUSKERAZALEAK**



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

# BEGONAZPI IKASTOLEA

ZUBIRI 'TAR SABIÑ 'ERI TA ZEARRA 'TAR YOSUNE 'RI EGINDAKO GORATZARREA

Orrilla'ren 25'ean jai andi bat ospatu zan goian aipatu-tako senar-emazteak goratzeko, Begoñazpi ikastolaren alde egin eben aalegiñakaitik. Jai ederra izan zan, eta goratzarre orretan tartekoak izan gintzazanokan aztarna aztueziña utzi eban.

Begoña'ko eleizan amarretan meza ederra ospatu zan, Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzailleak eta ango parrokoak emonda. Zenbatu-eziñeko neska-mutikoak eta ikusleak jai onetara etorri ziran, eleizea bete-bete izanik. Gotzain laguntzailleak, sermoi ederra egin eban, Sabin eta Yosune goratzen ebezala ikastolaren sorkundean eta geroko garapenean egin eben lana andiagaitik. Gero, jaunartzean, neuk ez dot egundo ikusi ainbeste neska-mutiko eta izan be, gaztedi ugari a Jauna artzen ikusteaz zirrara andi bat artu neban nire barruan. Onezaz gaiñera ikastolako erestalde bikaiñak edertu eban ospakizun aztu-ezin au euren abestiakaz.

Mezea amaitu zanean, atadian goratzarrea artzen ebenen eta Gotzai laguntzaillearen aurrean auresku bat dantzatu zan, eta jarraian, ikastolara joanda, itzaldi eta dantzakaz jaiak jarraitu eban. Gero, jaituak eta ikastolako batzordeak eta irakasle-andereiñoak Artxanda'ko jatetxe baten bazkaltzeko batu ziran.

Baiña goratzarre orren garrantzia nabarmentzeko, egoia da Begoñazpi'ko ikastolaren edeskia jakin-erazotea.

Sabiñ'ek eta Yosune'k beste gurasoekin alkartuta, euren umeentzat euskera ikasi egien gura eben, eta onezaz gaiñera erreljioaren babespean. Guraso-talde batek On Jesús Gonzalez'eri, San Nicolás'en katekesisen arduraduna zanari, laguntza eskatu eutsoen, eleizaren babespenan errazagoa izango litzakelakoan euren asmoa lortzeko. On Jesús'ek baietza emon eutsen, eta 1.957 urtean, andereiño ta laguntzaille bikote batez 9 ume ikasten eta jaunartzeko gertakizuna asi eben. Baiña poztasunak gitxi iraun eban, Gurpide Bilbo'ko gotzaiñak ikastaroa amaitu zanean, ikastola itxi eban.

Gurasoek, baiña ez ziran kikildu eta Aita Agirretxe'ren laguntzarekin, Iralabarri'ko Prantziskotarrenean, beste ikastaro bat sortu eben, baiña 1.958-1.959 ikastaro au amaitu barik, salakuntza bat gertatu zan, eta frankotarren agintariiek irakaskintza eten egin eben, eta gurasoek etxeetan Errotaetxe'k lagatako Elkano kalean etxe baten legezko ikastola bat zabaldu eben. Gero, eta andiagoa. Gran Vian, Oñate izeneko erakunde bat sortu eben.

1.968 urtean, D. Resurrección Maria de Azkue izeneko zan ikastolaren batzordeak, Loteria kalean egoan Santiago'ko ikastolea Yosune'ri zuzendu egian eskatu eutsoen. Zazpi umekin zabaldu zan, baiña izen emote andiak jarraitu eban, On Epifanio Mezo parrokoari,

Banco España kalean egoan etxe batera ikastolea aldatzeko baimena eskatu eutsan. Baietz esan eutsan, baiña andik laster, txiki geratu zan, 80 umeentzako lekuri ez egoalako.

Resurrección Maria de Azkue ikastolaren batzordea leku baten billa aalegintzen zan lankidetzta moduan ikastola bat sortzeko. Bein baten bere amaren etxean, Yosune'k, Begoñazpiko leikametxekoa zan, Sor Delfina ezagutu eban, eta onek jakinerazo eutsan gotzaiangoari leikametxea saltzeko asmotan egozala, leikaimeak Otxarkoaga'ko auzora joateko asmotan egozala-ta.

Yosune'k, zelan edo alan ikastolea eleizearen babespean egon zeiten gura eban, eta ez lankidetzta bat gurasoak aginduta. Orduan, Gotzaingoan, On Jose A. Ubieta, On Angel Belda, On Jokin Perea eta On Jabier Astorki'ren laguntzaz, baimena lortu eban Begoñazpi'ko leikametxean eta parrokan ikastola bat sortzeko. Aldi airetan Monseñor Zirarda zan gotzaingoaren arduraduna.

1970 urtea zan, eta Dionisio Barainka etxegillearen (arkitektoaren) duaneko laguntzaz, lanak asi ziran, eta irailaren asieran, Santiago'ko ikastolatik etorri ziran 55 umeekin asi zan, eta 1.974 urtean Santiago'ko ikastola itxita, Begoñazpian jarraitu eben.

Begoñazpi'ko ikastolea baiña, laster txiki billakatu zan, 1.979 ikastaroan 780 umek izena emon izan eben. Orduan gotzaingoari ta ikastolako batzordeari oraingo ikastolea Txurdinaga'n egitea eskatu yaken, oraingo orubea ikastola barri baten ordaiñez. Orretarako, Lazaro Anasagasti eraikigillearekin itz egin eben, eta onek baietza emon eban. Olan ba, 1.980 urtean Begoñazpi barria egiten da, Txurdinaga'ko oraingo bere lekuan, 828 ikasleekin.

Sabiñ'eri emondako gurasoen laguntza andia izan zan, eta Yosune, eralguntza ta idaztegerik bage aurre egiteko gai izan zan onetariko erakundeak izaten dabezan buruaustei. Orain, ikasgela barriak egiten ari dira, 1.200 ikasle artzeko asmoz.

Ona men labor esanda Begoñazpi'ko ikastolaren edeskia, Guraso gitxi batzuk aberriaganako maitasunez euskal mintegi bat sortzeko gai izan ziran. Gogoan izan dagiguzan betiko arein izenak eta ekintzak.

IÑAKI

---

# BIZIAREN GUNA

---

Bizia esku artean daukagun gauzarik baliotsuena da. Gure inguruan geuk asmetan dogun guztia geure izatia da. Jakintsuak, ezjakiñak ta bien bitartekoak arrituta dagoz biziaren zer edo kezka orregaz. Bakoitzak bizi dau biziaren muiña gogotsu ta arrigarri. Bizia geure izate arrigarria da, iñork ez dau gitxitzat artzen, bakoitzak bere baitan gozartuten dau.

Ez-jakiñak eta jakintsuak, beartiak eta eukitsuak, xumeak nai aundikiak, apalak eta arreak, guztiak gogorazten dabe bizia norbere erara. Baiña bizia galdezka dago edozein gizaki adimendunari... ikastegira, mendira, itxasora, solora, jolasera... nora zoaz, argiz jantziriko izaki edo giza semea... Biziak ba, bere duiñeko bizilariak nai ditu.

\*\*\*

## EDERRA TA BIZIA

Ederrak ederra maite dau ta lurrean bizia dan lez bitxirik baikaiñena, gu beren izateaz baliatzea nai dau, lora ederra, alperrik galdu ez dedin. Biziak nai dau giza jakituriaren bidez lurra ta gizadia edertzea. Ona danak, bere izate ongaria zabaldu nai dau lurrean ta gizartean. Berezko legea da zuzentasun bidea, bizia ta egia, aurrera ateratea eta lan bidea sortuz, poza gizartean zabaltzea.

Giza jakituriak ba zeregin aundi bat dauka, zertarako jaio dan ikusirik, biziaren bitxi eder oneri begiratzuz, duban arturiko doai au munduan edertzea. Giza-izateak, jaiotz ondoren, azi, edertu ta loratu egin bear dau persona bakotxean ta lagun artean. Biziaren sorleak gizonari esku-bidea ta agindua ortarako emon eutsozan.

Gauza bidezkoa da, gizadia anaitzat arturik, norbere kideko guztiak, obeto, ikusi nai izatea... Or dago ba, biziaren sustraia, alkartasunez lurreko onurak danen artean gozartutea.

## BIZI-POZA TA LARRIA

Bizia nai dogu ta bizia ermetan dago. Bizia agertzen da abereetan, itxasoan, lagunetan ta izadian. Urtero-urtero, barriztu egiten da ta barrizte onegaz batera dakar poz aundi bat biotzaren erdi-erdira. Izan be, gu pozerako sortuak gara, au da, gure barruan daroagun deiak alaitasuna eskatzen dausku. Otzagaz ta illunagaz gure zentzunen indarra kikildu ta ezereztu lez egiten da ta batez be neguan ta zartzaroan biziak iges egiten dautso giza-semeari.

Negua izadiarentzat beti izan da nekegarri ta tarteka pozgarri. Udako bedar ta orri guztiak jausten dira ta zugatz guztiak geratzen dira billotsik, itun eta larri.

Txoriak ixildu ziran, basurda ta otsoak dabiltz irrirtz eta orro gauaren gaupean txaboletako ardiak iruntzi nairik. Artaldearen errukarria... Otsoak ba-datoz mendi gallurretatik berantz txabola zarrera, baiña artzain eta artzaiñora lenago eldu dira. Ardiak ezagutu dabe artzaiña ta pozez bete da txabola barrua. Artzaiñora edo ardi txakurra, zur dabil bere zeregiñetan, zelai edo nundik agertuko diran gabeko pizti ankerrak. Zoli asi da zaunkaz, otsoak emen dira ta artzaiña askar iskillu eskuan arturik, zain dago.

Bat, bi, iru ta geiago datoz ta artzaiña adoretzu asi da dinbi ta danba, ta zazpi otso, laster, jausi dira lurrera ta zortzigarrena biotza zaurituta, jausi da leza barrenera. Ta gero edurra mara-mara, mendiak zuritu ziran. Neguak bere agin zuriak agertzen ditu gau itzalgarrian. Alderdi guztietatik ixiltasuna ta otsoaren gogorkeria. Otso aldetik bakea dator laster ta edur aldetik gudea, au da giza suberte larria.

\*\*\*

## UDABARRIA

Baiña ez bildurtu, erreka, ibai, urtegi, mendi, solo ta zelaiak ezotasunez asetzen doaz ta udabarria eldu da. Zugatzak asi dira esnatzen, adarrak orritzen ta zelaiak orlegitzen eguzkiaren printzapean. Negu-gau larria lorazko egun-senti argi biurtzen asi da ta danetik dator lorea, frutu barrien itxaropen gozozko legez, betiko berezko legea dan legez izadiaren bizitzan.

Ta izadian udabarria ain eder dalarik, zer ete da gizadiaren udabarria... Jendea alkar agurtzen, bata besteari on egiten ta bear izanean dagonari laguntzen...

Auxe da izan bere, Jesusek Aitagandik lurreko seme-alabentzat ekarri eban mezua, agindu barria. Munduak ez dau beste orrenbesteko jakituri ongarririk ezagutu, norbere burua lez bestea maite izan, gaisoak ikusi, kateipetuak ikuskatu ta kateiak apurtu ta personea askatuta itzi bere nortasunean.

Au da Jesusek ekarri eban bizi barria gure kristau bizitzako udabarria, personearen barrua askatu ta pozez betirik izten daben jokabidea.

Bizi-modu au egin ta zabaltzen dabenak, emen, lurrean, gero beti, udabarrian biziko dira, frutu onen gozotasuna gozartzen.

PAULIN



---

## NEURE ERITXIA

---

"El poeta nace y el orador se hace". Egi-egia da erdaldunen esakera onan adierazpena. Ikasiaren porasuz egiten da izlaria bai ikasiak-ikasi eginda be, berezkoa ez daukana sasi -olerkari baiño ez daiteke.

Bertsoz idazten daberen guztiak ez dira, ba, olerkari. Jaiokeratik dakarren sena baldin ezpadabe alperrekoak izango dira arein alegiñak: Olerkaria izateko jaijo egin bear da ba.

Aldi onetan ainbat dira, bazterretan, olerkiak idazten dabezanak, baia olerkari-sen askorik ez da agertuten, ez direalako benetako olerkariak. Or dabiz, politika-lurrunez-edo, edoietaraiño jazoten dabezan bere moduko olerkai batzuk, eta iñok be ez dauz aittetuten Zaitegi'tar Jokin, Muniategi'tar Sabin, Zubiri'tar Iñaki, Kerexeta, Aita Onaindia eta, bene-benetako beste olerkari batzuk.

Bertsolari-eskoletatik urtendakoak bere ba-dabiz or zear, baia gitxi batzuk alboratuz gero, ba-dabe, ba, tiau andirik?

Biotz-ikutu bardiña ez dogu nabaituten leenagoko berezko bertsolari-zaareri aditzean eta oraingoeri entzutean. Oraingoak bai ba-dabe bear ba'da, erderakada itxusi ta abar, leenagokoak baiño izkera ugarigoa baia ez arein antzeko berba egokirik eta esakerarik. Eta euskerea ondo erabilten ez dakienez, esakera lorriñak eta baita, gizartean esateko egokiak ez direan berba gordin eta baldarrak be jaurtiten dabez; eta au ez dogu benetako bertsolarien izakera.

Leenagoko bertsolariak, berezko ikasiaz, oraingo ikasien aldean bertsolari onak eta lotsazkoak genduzan euren izakeran eta bertsoak jautikeran.

Bai orixe!

A, ta or dabizan bertso-jartzaille batzuk, oba lotsa apur bat ba-lebe, bertsolarieri kantagaiak izentetan...

Betoz, ba, benetako olerkari ta bertsolariak, bide jatorrez gure berbetea edertu ta edatu daiten.

Bakotzak bere eritxia azaldutea bidezkoa danezkerero, ez bedi iñor minberatu, egia azalduteagaitik.

**Aurre-Apr aiz**

\* \* \*

### TXARTO EGIÑAK ZUZENDUTEN

Euskal-lanetan zarri agertuten dira akatsak. Arrast (koma) bat aldatzeak zein bear ez dan tokian ezarteak, eta, itzen bat edo izkien bat aldatuteak, adierazpena be aldatu egin daroa.

Jorraileko Gaingailena nire ipuiñaren asikeran Sein (umea) izan bearrean, Zein dakar eta bestelakotu egiten dau esangurea. Ipuñaren asikeratik lazter, amabigarren lerroan, aize -epela-ren jarraian, asi ta ederra zala daukan lekuan amaituta, urrengo esataldiaren utsaldia dauko: nebillan urrilleko goiz argi baten eta an ebillan ara ta ona, batera ta bestera begira, ezkututa".

Norbere lanetan olako akatz eta lorrinkeriak ikusi ezkerero, idazteko gogoak alde egin dau ba.

Olako akatsak sarritan izaten dira irarkoletakoak euskeraz ez dakielako be; eta, euskera gaizto baiño baldin ez ba'dakie, txarrago, idatzitan dagoan itza okerra dalakoan aldatu egin daroe-ta.

Olakoxe lorrinkeriak agertu oi dira, ba, irakurle, zorritzarrez, euskerazko idaz-lanetan.

**Aurre-Apr aiz'tar Balendin'ek**

# GURE LURRA TA GU LURTARROK (III):

## BIZIDUNAK ITXASO AUNDIAN

Bizkai osoa ta Euskalerrri osoa, aurreko idazkian esan dogun lez, itxaso aundi baten azpian egon zan 900 milloi urtean. Itxaso onek gaurko kantauri eta Lurrarte (Mediterraneo) bat egiten ebazan. Aldi luze orretan itxaspean lur emonkorrak sortu ziran, ara jausten ziran ondakiñak eraginda (sedimentatzea deritxo oneri).

Baiña irugarren aroan (era terziaria) lur onek itxaspetik urten egin eban. Zelan ori? Akitani mendiak alde batetik eta Asturi-mendiak eta ibairu-mendiak bestetik lurralde au estutu egin ebelako, barrurantz sakatu eutsuelako eta ondoren lez lurrak gora ta gora jo eban eta izurrak (mendiak) sortu ziran barruan. Orra or gure menditxuak eta bitarteetako leunune oparoak eta euren errekatxuak. Gauza ederra benetan! Bigarren aldian sortuak ziran lurrak itxaspetik urten eban gure lurraldea sortzeko. Iru alditan aztertuko dogu lur-gaiñe au: Trias-aldia, Jura-aldia eta Kreta-aldia.

Trias-aldi edo triasikoan lenengo are-lurrak agertu ziran, gero orra barrriro itxaso sartu zan eta gero kare-arriak sortu ziran. Bizkaia'k irugarren aldi baten osotu eban lurra 150 neurkiko lodiereagaz: margak edo sedimentuz sortutako aitzak, igeltzokoak (oneik Orduaa-aldean ikusten dira), ofitak (olako arrobiak, esaterako Fruniz'en eta Errigoiti'n dagoz eta suge-arri edo muzker-arri esaten jake beronen orlegiantzeko margoagaitik) ez dira mendi aundiak eta ez zorrotzak, biribillak baiño.

Sarritan ikusten doguz, batez be gaurko bide zabalen alboetan lur-azalak, estratoak alkarren gaiñean. Ara: lenen sortutako lur azala azpikoa da gero gaiñekoak, berez ezkerriek eskumara egon bear leukee baiña sarritan goitik bera dagoz, azala sortuta gero izurra sortu dalako. Diapiro esaten jako orreri eta orrelan sortu dira gain biribilla dauken eta alkarren ondoan dagozan muñioak, bitarteetan landak eta erriak dirala. Argien agertzen diran lekuak Larrauri ta Orduña dira.

Jura-aldi edo jurasikoan itxasoa barrriro zabaldu zan lurra beeratu egin zalako. Egualdiak beroak ziran eta narratzi aundiak pozik ebiltzan. Olako lurrak Gernika'ko ibaiaren ingurukoak dira. Orduan sortu ziran kare-atx aundiak.

Kreta-aldi edo kretazikoak garrantzi aundia dauka gure lurralde onetan. Bekoa ta goikoa dagoz barruan. Beko kretaldian itxaso atzeratu egin zan eta koralez osotutako kare-atxak agertu ziran, baita burkin-meatzak be. Goiko Kretaldian ostera, Somorrostro'tik Barazar'era zabaltzen dan lurralde zabalean kare-arriak ugari agertu ziran. Orreikaz egiten dira gaur etxeak eta lenago be bai baseleizak eta abar. Kare-arritzko mendi onek toki batzuk legor biurtzen dabez esateko Anboto ta Ranero-inguruetan. Olako atxak sarritan artzuri edo mannol biurtzen dira, esaterako Ereño'n.

Ura beroa zan aldi areitan arri-barrura beste kimika-gai batzuk sartzen ziran eta ortik dira burdin-meatzak, esaterako gure lurraldeko meatzak burdin-mota asko ekarri dauskue eta kreta-aldi onetan lortuak dira.

Goiko kreta-aldian itxasoak aurrera-aldi aundi bat egin eban, iñoz izan danik aundiena, eta orduan izan zan aundie-

na gure lurraren gaiñeko itxaso. Or sortu ziran gure itxasertzetan gaur diran atxak.

Goazen kreta-aldiaren azkenera: Otz aundia etorri zan eta berotan pozik ibillitako narratzi aunditzarrak galdu egin ziran betiko. Emen osotu ziran kaiuela-arriak esaten jakenak, meiak, ingiorriaren antzekoak eta biguak. Oneik egin-dako mendiak aizeak txautu ebazan eta txiki-txikiak dira. Aldi onetan aitz bat dago Larrebazterra'n baiña gaur etxe barri aundiak eginda ostendu egin dabe.

**Olazar'tar Martin**

### EDERTZEN

Au gauzaren ederra... gauza barriak ikustea ta aurrera-kuntzak ikustea, gizonaren bizia da, gure lurra, mendia, ibar ta muñoak, berez, dira ederrak, geienez orlegiz jantzita. Orlegiaren margoa urtean lau bider aldatzen da, ta mendi, troka, tontor, zelai ta ibarretan ez da orlegi bardaña, baiña beti, toki guztietan atsegingarria. Gure begien atsegiña da orlegia ta Euskalerrria..

Euskaldun guztia da eder-zale ta nik be eder miak jota, auzoetan zelan ete doan gauzea ikustera urten nabere gure ibarrak zear...

Lenengo ikuspegia Gamiz aldea izan zan. Nire begiak, berez, poztuten ziran ibar ta zelai zabalera arek ain garbi ta ain orlegi ikusteaz ta zabalera gozatsu aren erdian erria, ta alboetan Euskalerrria sortu eban basetxe zuriak.

Erri barruan ikusi nituan ingurgak apaindu barri baratza bartten antzera ta udarako urtegi urdiña askoren jolas ta pozerako. Denpora barriak ekarri ditue ale eder serbitzariak.

Aurrera jarraituz, mune txairo baten gaiñean dago Fike eguzkita begira. Dana deika dagola dirudi ta bertara eldukeran, bide zear guztiak belbillez, lau gurrilleko burdiz beterik dago inguru guztia. Pelota toki eder bat, obratan, ikusi neban euskaldun gazteen jolas almenak negurtzeko aiñakoa, benetan ederra. Euskaldun gizonak ba-dabiltzaz bearrean, ur-bideak, lur-bideak ta erri barruak egokitzen.

Gure berezibilla gertu dago aurrerantz ekiteko ta solotar-terik solotarte ta mendizka batetik zearka goazela, Fruiz, euskotar arpegi oso osokoa, aurrez aur, agertzen jaku. Lenen lenengo, bide zabal batek emoten dausku eskua errian sartu-keran. Inguru ederra da zugatz orlegizkoz apaindurik. Erri barrua konpondu-barri ikusi genduan, edornori ondo-etorria emoten dagon gazte apaindu baten antzera. Eusko jendeak lan egiten dau, eredu ona zabalduz.... Begiratu, ikusi ta asmo onei jarraitu.

Baiña arrimenik aundiena izan zan errira eldu ta pelotatoki ta etxean bitarteko inguru danaren lur gain guztia arri zuriz estalduta ikustea zeru goitik jarri dan edurrezko izera zuri, luze ta zabal-zabal baten antzera. Eusko jendeak lan egin dau erri bizia edertzen. Neguan zapata zuriekin joateko moduan dago, gaur, Arrietako erria. Guztiei zorionak...

**Paulin**

## URKIOLA ARRIGARRI: IV GUDAK

Geure eleizak maite doguz eta gutzat bizitzako gomutaki asko daukez barruan eta antxe izan dogu Jeungoikoa-gaz alkartzeko toki egokia.

Baiña zori txarrez guda sortzen danean kristiñau diran gudalariak eurak izaten dira eleizak apurtzen dabezenak.

Gogoratu, esaterako, Begoña'ko eleizea. Zenbat bidar izan da apurtua, zenbat bider egin diran bertan lapurretak eta sua!

Mungia'ko eleizea daukat oraintxe gogoan. Bilbao zaintzeko zan ez Burdiñezko Garrikoaren ondoan egoalata dinamitaz austu eben eleizea. Eta ez ziran sinistebakoak lan ori egin ebenak. Gudak bere legeak daukaz eta legeen barruan gorrotoa ta asan-ea.

Antzeko jazoerak izan ziran Urkiola'n be.

Lenenego txandea frantzetarrena izan zan: Gaiso-etxe-ko atekaz sua egin eben, al eben guztia ostu eta ganora barik saldu. Kosta zan ainbat eleiz-gauza barriro eskuratzeta. Mezea esatea be galazo egin eben eta orretarako baimena lortzeko gudari-buruari janarizat txitak emon bear izan eutsoezan. Aldi baten eleizarako atek zarratu be egin ebezan orma bategaz.

Bigarren txandea Karlostarren eta liberalena izan zan. 1834n. urtean barriro eleizarako atek ormaz itxi ebezan eta urrengo urtean erre, al eben guztia erre eben. 1828n.

urtean irudiak Abadeño'ra croan bear izan ziran, Torkatz deunaren parrokira eta lau urte igaro ebezan an. Bertara joaten asi zan jente Urkiola-zalea eta andik barriro Urkiola'ra ekarri bear izan ziranean, abadeñotarrak aurka jarri ziran. Gotzaiñaren agindua bear izan zan.

Karlostarren bigarren gudan Urkiola'n izan eban aldi baten bere bizilekua Santa Krutz abadeak. Gaiso-etxean alkartzen zan bere jarraitzaileak eta antxe errezaten eben eurakaz agurtza deuna. VII Karlos erregegaia bera be Urkiola'n izan zan 1875m. urtean arrentza baten.

Ulertu-eziñeko gauzea da zelako buru-aldaketa sortzen dauan gizonengan guda batek!

Gero 1936n. urteko gudaldia etorri zan. Urkiola'tik urrean dago Saibigain mendia eta emen izan zan gudaldirik gogorrenetariko bat, egunez eskuratzen eben batzuk mendi-gaiñea eta gabaz galdu eta orrelan ainbat denporatan. Gudaldi orren gomutakia da gaur eleizan dagon leiar margotu bat. Guda ez dogu aiztu egin bear, bake-zaletasuna sortzeko ondo jatorku gudaren ondoren negargarriak gogoratzea.

Eragozpen eta oztopo guzti oneik azpiratu eta Urkiola'k aurrera jarraitu dau, zorionez.

**Olazar eta Uribe'tar Martin'ek**

### IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO  
ATUNTAMENI  
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14. 2.<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.<sup>a</sup> 50.000 pezeta

2.<sup>a</sup> 40.000 pezeta.

3.<sup>a</sup> 30.000 pezeta.

4.<sup>a</sup> 20.000 pezeta.

5.<sup>a</sup> 10.000 pezeta.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.


**EUSKARAZALEAK**

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

Gure sustraiak Histori-aurreko leizeetan daude. Gure aurrekoak amentxen bizi izan ziran orain dirala 10.000 urte gutxienez. Aien semeak gera.

Deba-inguruan beste erri asko ikusten ditugu: Mutriku, Zumaia, Elgoibar eta abar. Guk, oiek eta beste geiagok osatzen degu Gipuzkoa.

Gipuzkoa Euskalerrian dago. Euskalerrian, zer da?



biderik onaena, ordea, ez dira orain artean konturatu. Zergaitik dan biderik onena? Gaur eguneko euskaldunetan antxiñako Euskalerriak irauten duelako.

Europan gaude eta Europako erririk zaarrena gera. Espaiña eta Frantziaren arteko mugan, Auñamendi (Pirineos) inguruan.

Ifar-aldetik iru alderdi; ego-aldetik, lau. Ortik dator esaera au: iru eta lau dira Bat. Zaspirak erri bakar bar egi ten dutelako, erdibituta ba dago ere...

Erri txikita gera.

# 4+3

Txikia, baiña oso ezaguna lur-bira osoan.

Zergatik ezagutzen gaituzte? Bakarra geralako erri bezela: famili eta seniderik gabea. Euskerari ere berdin gertatzen zaio: seniderik ez dula beste izkuntzaen artean. Biak, Euskalerrria eta Euskera, biak dira ugarte baten antzekoak.

Europako ertz batean or dago Euzkadi beste erri eta arrazaz inguraturik; bere senidekorik, ordea, ez dago bat ere erri eta arraza oien artean. Senide gabe. Bakar-bakarrik. Ugarteia itxasoaren erdian bezela. Euskera ere berdiñ-berdiñ.

Jakintsu asko agertu dira guregana, Euskalerrria eta bere sortzea ezagutu nairik; baiña, oraingo ez digute gauza aundirik argitu eta erakutsi. Euskalerrria eta Euskeraren sortzea, biak, oraindik lañopean daude. Illunpean. Illunpe orretan krisaillu batzuek piztuta daude eta krisaillu oien argira zer ikusten dan begiratuko degu.

Euskalerrria bakarria dala eta Europako erririk zaarrena dala, ori jakintsu guztiak aitortzen duten gauza da. Antxiñako euskaldunak ezagutzeko, oraingoak ezagutzea dala



Orra zergaitik gaur eguneko Euskalerrria ezagutzeari ekin diotenjakintsu askok.


## EUSKALDUNA GORPUTZEZ

Gaurko euskaldunen gorputzeri begiratuta gero, eta buru-azurraren luzaro, zabalero, mutur, sakon eta koska guztiak zearo miaztuta gero, euskaldunok, gai oneri buruz, tipo bereizikoak gerala, esango digute jakintsu antropoloak.

"Raza Pirenaica Occidental" jarri diote tipo oneri izena: "Auñamendiren Sartaldeko Arraza".

## EUSKALDUNA ODOLEZ

Gizartean lol-mota asko daude. Elemento kimikoak daude odolean A eta B. Batzuek bakarka dituzte A edo B. Beste batzuek biak naastean: A eta B. Beste batzuek, berriz, ez dute A eta ez B. Oiek dira O.



Ora irudisn  
euskalartank beta  
ga.ezurinri dagokionez  
untan fondean qdn  
diar idakuntzaren  
laburpena  
Gerrondoezurako  
re. etiza edo balen  
2Ba garezurmer  
Saturatols sameñ da.  
Orrek, aurpagieran  
-atea dala\*, eta  
garazurra kengauñis  
zebeltzea: a se dalrn  
ge kidunaren bidokl  
edo loki.ezurmk itenayo  
lzatea.



elementoa da. Falta danean esaten da Rh negativo: Rh-eza. Asian, arraza orikoek, ez dute beñ ere falta: dannak dute. Beltzak Afrikan % 5'ek falta dute. Beste azal zuria duten orok % 15'ek falta dute. Eta, euskaldunek? Talde askori analisisak egiñ ondoren, % 30 tik gora ez dute Rh elementotik. Frantziako euskaldunen artean % 40 eta Zuberoan % 52, batere gabe. Elemento Rh orren faltatik ere bediñ ateratzen da: ez gerala orientekoak; emengoak, baizik. Odol garbiena degula.

**Itz biretan.**

Euskaldunok antzinñako europatarren semeak gera. Aietatik sortutako erririk zaarrena eta garbiena. Oraingo beste europatarrek, geroztik etorritako erriekin naastu ziran, gu baiño geiago. Ortik datozte A, B, Rh...

"Macacus Rhesus" tximiñoak du elemento kimiko ori, Rh deritzana. Rh "Rhesus"tik dator.

Orañ amabi urte dirala, odol mota aukera onetan zeuden:

u odot-\_\_\_\_\_ : O A BaA}6

Frantzia			
España			
Euskaldunak			
O	=	%43,30	%39
A	=	%42,20	%47
B	=	%11,10	%8,90
A-B	=	%4,40	%4,40

Orrek zer adierazten digu?

O onek esan nai du odolean ez dagoela elemento kimikorik ez A eta ez B: odol garbia dala. %57 euskaldunek dute odol mota ori; beraz, euskaldunen odola garbiena da.

A elemento au Europako sartalde (occidente) eta ifaraldean (norte) agertzen da. Euskaldunen artean %41 dira mota ontakoak. Beraz, euskaldunen artean odol garbia ez duenak, ifar eta sartaldeko odola du (norte-occidente) eta ez sorkaldekoa (oriente).

B elemento au sorkaldekoa (oriente) da. Ango odolik emen ez (lago % 1,10 besterik. Ez gera, beraz, orientetik etorritakoak.

Buruko ezurretik beste orrenbeste atera zuten jakintsuak, "occidentalak" giñala: "Raza Pirenaica Occidental". Emengoak gera; ez orientetik etorriak.

**RH ELEMENTOIA**

1940 urtean elemento berri bat billatu zuten gizonen odolean: Rh deritza. Euskaldunen artean askotan falta dan

|| MAc,dcUS QXeSvS<sup>a</sup>




**MEGALITOS**

**TRIKUARRIAK**

Arri-losa aundiekin egiñak daude. Gorputzak eortzeko egiñak ziran. Trikuarri izena azpitik datorren izena da, Don Jose Migel Barandiaranek jasoa baserrietako izkuntzatik. Gaurko egunez "tregoarri" ere esaten da.

Megalitos griegoz "arri aundi" esan nai du. Beraz, Megalitos-Aroa Arri-Aundien Aroa izanen litzake euskeraz. Trikuarrekin batera, beste bi eratako arri aundiak ere agertzen zaizkigu gure mendietan.

Bata da:



**ZUT-ARRIA**, edo "menhir" deritzana. Zutitako arri-luze bat da.

Bakarrik egon oi dira, luze-luze.

Zertarako, jakiñ-ez. Izenak artzen dituzte xebreak: Iruñarri, Sanson-arri, eta Erroldan-arri ... Izaten dituzte arri oiek beren esaera eta ipui zaarrak; Jentillek, edo Sansonek, edo Erroldanek arrika Botatako arriak dirala esan oi dute ipui oiek.


Bestea da:

### ARRESPILLA EDO ARRE-ESIA

Aurrerago aitatu degun Zut-arria Arrespilla auekin zerikusirik badutela dirudi. Cromlechs esan oi zaie erderaz Arrespilla aueri. Arri-konkor aundiak ditugu lurrean zutik sartuta, inguru guzian.


Arrespilla auek ifarraldeko euskaldunen artean agertzen dira. Leizaran ibaiaren aranetik Zuberoaiño ba daude 400 ... egoaldera, berriz, oso gutxi.

Artzaien garaikoak ditugu Arrespillak, Zut-arriak eta Trikuarriak. Indarra ba zuten, nun-bait. Ordurako izango ziran gure mendietan arri-jasotze jokuak eta demak.



Emen alkarrekin jartzen ditugu Naparroako zut-arri eder bat eta Arabako (Elvillar) trikuarria. Trikuarriau gordeta zegoan lakuari "la choza de La Hechicera" esan oi zioten.





Zenbait artzaien orain-arteak tresnak ordukoak dira. Esate baterako: kaikua. Egurrekoa, esnea egozteko. Arriak berotu eta esnetan sartu, esnea egozteko; orrela ez zan kaikurik erretzen. Arkien illeakin, artilleakin, aria egiten zuten gorua eta ardatzaren bitartez.


Garai artako esaerak ere gurraño eldu dira. Gizon eiztaria ez zan galdu artzaintzarekin; baiña, eurak ez ziran dirudunak, besteak baizik: "aberatsak", alegia. Aberatsa zan abereak zituna, artzaintzan zebillena. Aberetik, aberatsa. Gaurko egunean aberatsa da billete orlegi asko dituan giza-seme edo giza-alaba. Orduko billete orleak auek ziran (gaur ere): ardiak, zaldiak, zezenak, auntzak...

Artzai da ardiak zaintzen dituna; Unai da beiak zaintzen dituna.

Zertarako egiten zituzten arri-esi auek? Gorputzak eortzeko, lurperatzeko. Nola sortzen zituztan? Erreta gero. Gorputzen erre-autsak sartzen zituzten Arrespilla oien erdian egindago zulo batean.

Zulo aoietan arkitu dira lurrezko ontzi-zatiak, ikatza, ezur erdi-erreak, sukarrizko (pedernal) lababesak edo tresnak, aizkora txiki-txikiak eta abar.

Esi orren erdian, zuloaren orde, lurrezko ontziak daude erre-autsez; autsak ontzi gabe ere bai.



### ARTZAINZA

Trikuarriak, Zut-arriak eta Arrespillak artzaien lanak izan ziran. Eneoliticos-Arokoa, edo Tupiki-Aroa Jesus Altunal dionez. Tupiki edo burni-ori zera da, brontzea. Brontzea sortu zan garaikoa. Brontzea arria eta ezurrak baiño gogorragoa da; orregaitik arria utzi eta brontzeari eldu zioten gizonak.

Guzti ori gertatu zan artzaien garaian. Artzaiantza sortu-ta.


Millaka urteetan gizonak basoetako pizti eta animaliak arrapatzen zitun jateko eta jazteko.

Baiña, geroago abereak arrapatu, menperatu eta ezi zitun bere probetxurako. Orrela ez zuan basora eta mendira joan bearrik animaliak arrapatzeko, etxian bait zituan abere oeik...

Eiztaria zan eta eizetik bizi zan. Gero egin zan artzai eta eiztari, biak batera.


Aztzai egin zanean euskalduna, asi zan batetik bestera, bere abereak aurretik zitula, belar-billa. Ibilkera oietatik sartu ziran gure artean trikuarriak, zut-arriak eta arrespillak. Eiztaria bakarrik zanean, leizeetan, kobeetan, bizi zan eta bere inguruan luzperatzen zitun ildakoak. Gero artzai zanean mendi-tontorretan zebillen bera eta an bertan luperatzen zitun trikuarri eta arrespilletan.

Ba zan, orain urte batzuek dirala, gaur eguneko artzai-txabola bat trikuarri baten gainean egiña. Oraingo artzaiak. leengo artzaien tokietan.



**A. Arrinda**  
(Eskolan 1975)

# MONREAL DE DEVA



Gu Deba'n bizi gera.  
Eta Iziar da Deba'ko auzo bat; baiña, Iziar zan zaarago.  
Iziarrek ba-ditu beste auzo batzuek ere. Auen artean daude Lastur, Endoya eta Elorriaga.

\*\*\*

Deba Iziar'tik sortu zan 1.342'an.  
Eta izena artu zuan onela: "Monreal de Deva".  
"Deva" zan ibaia eta ba-da beste ibai bat ere izen orrekin Santander eta Asturias'en arteko muga.  
Izen orrekin erria ba-da Inlaterra'n.

\*\*\*

Deba'ko erria ibaiaren ondoan bildu zan; Leenago baserriak sakabanatuta zeuden eta eurak bakarrik bizi ziran.

Baiña, 1.342'an Iziar'tik jetxi ziranak erri-bildua edo erri-billa egun zuten. (Erderazko "villa" euskerazko "billa" tik omen dator)

Ibaiak itxasoakin eskubitik egiten duan muturrean jaso zuten beuren erri-billa.

Beba Gipuzkoa'n dago. Gipuzkoa, berriz, Euskalerrian. Euskalerriak ba-du beste izen bat ere: Euskadi. Euskaki euskotarren erria da. Euskotarrak dira Euskalerrian jaiotakoak, naiz eta euskeraz jakiñ ez.

Euskalerria, berriz, izan bear luke, euskeraz dakitenen erria.

Euskalerriak, edo Euskadi'k, zazpi alderdi ditu: lau, mugatik ego-aldera; beste iru, mugatik ifar-aldera. Muga ori ez da gurea, España eta Franzia'ren artekoa, baizik.

Euskalerriko arma-arriak sei zati ditu; Euskalerria'k, berriz, zazpi alderdi.

Ori zergaitik da?

Ego-aldekoak auk dira: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nabarra. Ifar-aldekoak, berriz, auk: Lapurdi, Zuberoa, eta Benabarra.

Benabarra, zazpigarren zati au, leen Nabarra ren zati bat zan. Erderaz deitzen zioten onela: "La Merindad de Ultrapuertos". "Puertos" orrek Auñamendi edo Pirineos etako goiko gaillurretako pasadizo edo atea esan nai du. "Ultrapuertos", berriz, ate oien beste aldeko lurrak dira: Benabarra'koak.







Izena Euskadi, Sabin Arana-Goirik asmatu zuan, euskaldunen aberria izendatzeko. Pagoatik pagadi eta lizarratik lizardi bezela, euskotik Euskadi ateratzen da. Ikurriña era beraz asmatutakoa da: gorria, orlegia eta zuria.

Deba'ko lenengo biztanleak leizetan bizi zirari. Kobeetan.

Ba-dira gure inguruan leize ugari-

Garrantzi eta inportantzi aundiena iru auek daukate: Ermitia, Urtiaga eta Ekain Irurak daude Deba'ko mapan.

Arbill mendian ere bada beste bat.

Aurtengo udaran (1976), Jesus Altuna, Pablo Areso eta beuroen laguntzaildek aztertu dute.

Ez dute gauza aundirik arkitu.

Ez da gizonaren bizi-lekua izan. Bertan, marmota deritzan animaliaren ezurrak topatu dituzte.

Marmota toki elurtsuetan bizi da; Arbillen ere izango ziran garai aietan elurrak eta izotzak. Galantak.

Orregaitik edo, gizona ez zan bertan biziko. Ez da, beintzat, bertan gizonen arrastorik.

Ermitia'ko koba-zuloan, leizean, bi zulo, bi tunel iriki dituzte Behobia-Bilbao'ko autopista egiteko.

Ondamendi eta kalte aundiak egiñ ornen dituzte leiza barruan oraindik aztertzeke zegoan zatian.

**A. Arrinda**  
(Eskolan 1976)

---

## ITXAS-ONTZIGINTZA (III): GUDA ETA GUDA-OSTEA

---

1936n. urteko guda asi zanean, mundu osoan, 393 itxas-ontzi baiño ez ziran egiten eun tonetik goragoak eta erdiak Ingalaterra'n egiten ziran. España osoan bederatzi itxas-ontzi baiño ez ziran egiten. Berrogeigarren urtetik laster Euskaldunak Jose Calvo Sotelo arrorio ontzia saldu eban. Ia 11.000 tone eukazan eta Euskalduna'n egindakoen artean aundiena izan zan. Gero etorri ziran Udala-Mendi, Urkiola-Mendi eta Urbasa mendi. Baiña Bizkai'ko ontzigintza larrialdi aundi baten egoan, bear ziran gaiak ekarte eziña zalako.

Betiko zori txarrik ez dagoan lez, berrogeta amargarren urte inguruan agertu zan aldi ohea eta 1956. urtean agertu zan Salerosketako itxaskarien legea, Carrero Blanco eragille zala: Sarreran argi esaten da gure salerosketen % 95 ixasoz egiten dirala. Gero lenago izandako legeak gogoratzen eta aztertzen dauz, ez dirala naikoa esanez, daukaguzan ontzirik geienak 25 urte baiño geiago daukezala diño, amar urterako asmo bat azaltzen dau. Lege onek asko adoretu eban Bizkai'ko ontzigintza eta lantegi barri bat sortu zan Naviera Vizcaina izenegaz.

1975n. urterako lege ori txiki geratu zan, baina ikusi daigun amar urtan (1956-1965) zer egin zan Bizkaia'n:

1956: Aurreko urtean lako bi ontzi egin ziran.

1957: Cabo San Roque eta Cabo San Vicente Ibarra etxeak agiñak eta Unbe-Mendi, Pagasarri-Mendi, Arukas-Mendi, Campoverde, Alejandro Zubizarreta, Conde de Cadagua ta abar.

1958: Bilba'ko Erakuste-Azokan Alberto Ullastres Salerosketarako Ministroak erbestera ontziak egitea eskatu eban, gure Ontzi-Olak onak ziralako. Urte beratan saltu al izan ziran ontziak atzerrira.

1959: Egin ziran ontzietatik %42 Bilbao'n egin ziran, baiña otz-urtea izan zan.

1960: Oztasuna aurrera doa eta ontzi-eskariak urriak dira. Ruiz de Belasko ontzi-olak egin ebazan Paraguai'rako ontzi batzuk.

1961: Larri-unea sortu zuan eta mailleguak be urritu egin ziran ontzi-oletarako. Ruiz de Belasko'k egin ebazan batzuk Paraguai'rako.

1962: Naval'ek bat eta Euskaldunak beste bat egin ebezan Brasil'erako eta Euskalduna'k beste batzuk Noruega'rako.

1963: Erbesteako ontziak egiteak jarraitzen dau eta erosle barriak dagoz: Libia, Liberia, Suezia, Argentina. Vinci ontzia egin zan Bizkaia'n, butano eroateko lenengo.

1964: Itxas-ontzi zarrak alboratu eta barriak erosteko gogo a bizkortzen doa.

1965: Azkenengo urtea da au eta maillegoak urri izan eta lana be urritu zan arren, ezarritako elburua bete zan. Urte onetan apur bat lasaitu ziran maillegoak eta Espa-

ña'rako ontziak saldu al izan ziran. Bizkai'tik Cuba'ra ta Paraguai'ra saldu ziran eta butano eroaleak be ainbat. Bizkaia'n bulkcarrier deritxoenen tankerakoa egin zan baiña aurreko burdin-erakundea ipinteko Gijon'era eroan eban, Olabeaga'tik ezin igaro izango zalakoan. Geroago ontzi aundiagoak be egin dira eta amaituta igaro dabe toki ori, Eduardo Aurrekoetxea portuko eroalea ona zalako. Tenerife'rako beste ontzi bi egin ziran Bilbao'n urte orretan.

1967: Bizkaia'n itxas-ontzi izozkin bi egin ziran: Portugalete ta Plentzia eta bietatik lenengoak arin egitearen lenengo saria irabazi eban. Panama'rako ta Marruekos'erako be egin ziran ontziak eta Ruiz de Belasko Ontzi-olak Paraguai'ra saldu ebazan beste bi.

1967. Suez'eko itxas- bidea itxi zan eta orrek ikutua izan eban ontzigintzan.

1968: Lau itxas-ontzi aundi egin ziran, arrorioa eroatekoak: Ceuta, Pablo Garnika, La Rabida, eta Zaragoza. Azkenengo au Sestao'n itxasoratu zan eta bildur aundia egoan ibaiko ura kalera etorriko ete zan, baiña ez zan ezer jazo. Kamaroi-ontziak be saldu ziran, Cuba'rako amasei eta beste asko.

1969: Egoerea oso ona da, baiña ba-dago bildurra ontzi jarregi egiten ete diran. Altzairua ekarte be gaiztu egin da eta erbesteko ontziak merkeagoak izango ete diran da bildurra. Urte onetan beste jazokizun bat aitatu bear da: Amasei illebetean arazoa aztertzen igaro-ondoren, iru ontzi-ola alkartu ziran (Naval, Euskalduna ta Cadiz) eta barri bat sortu: Astilleros Españoles eta au Europa'ko aundienetarikoa da.

Urte onetan be ontzi asko egin ziran: Zelaia'k Kubait'erako arrorio-ontzi bat, Euskaldunak Serantes eta Ziburur-Mendi, Sestao'n Alemania'rako arrorio-ontzi bi, Peru'rako beste iru, eta beste ontzi txikiago asko.

1970: Alemania'rako arrorio-ontzi bi, Yugooslavia'rako zama-ontziak...

1971: Urte guztiz txarra izan zan, zan dolarrak asko galdu ebalako. Alan da guztiz be ontzi asko egin ziran Bizkaia'n, asko eta garratzi aundikoak: Soledad Maria, España'n egindako bilkcarrierrik aundiena, Axpe'n egin zan Gipuzkoa ontzia Europa'n zan atun-izoztuen ontzirik aundiena, eta beste batzuk Alemani'rako, Ingalaterra'rako ta India'rako. Murueta'n egin ziran beste bi, Zamakona'n bat Argelia'rako, Axpe'n Panama'rako sei ontzi eta Zelaia'n Aberatsen ibillaldietarako ontzi eder bat.


1972: Urte Txarra au be, azkenerantza apur bat obeto.

1973: Urte ohea.

1974 Urte onetan itxasoratzen da Bizkaia'n egindako itxas-ontzirik aundiena: Carmen Maria.

**Olazar'tar Martin'ek**

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki oneitan 15 ezbardintasun dagoz. Aurkituko dozuz?

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85


FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO



sortzen dogu



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

200 pezeta (120,20 Euro)

**bbk<sup>2</sup>**